

# Euskalingua 31

## Aurkezpena

Irakurle on hori,

Oraingoan Euskalingua 31 dakargu argitara artikulu bigaz; batean, I. Gamindek lexikoaz dihardu eta, bestean, G. Ezkurdiak, B. Bilbaok eta K. Perezek Emakume Abertzale Batzaren sorreraz eta jardueraz dihardute.

EUDIA taldeko Iñaki Gamindek, hizkuntzaren aldakortasunaz jarduteko, *Bilboko euskaldun gazteen lexikoaren eraileraz* deritzon artikuluan gazte horreen lexikoa aztertu dau. 55 gazte euskaldun izan dira, 29 urteko batezbestekoa dutenak, ama-hizkuntzaren eta generoaren arabera banatuta. Komiki bat irakurtzeko denbora neurtua emon ondoren, berori kontatzeko erabili daben lexikoa izan da aztergai. Testuak grabatu, digitalizatu, etiketatu eta transkribatu ostean, analisi kuantitatiboak aplikatu jakez eta euron ondorioz agertu da lexiko aberastasunean ez dagoela alde esanguratsurik ez informatzaileen ama-hizkuntzaren arabera, ez eta generoaren arabera ere. Bestalde, Gaminderen aurreragoko lan batekin alderatuta, ez da alde esanguratsurik aurkitu herri txikiko eta herri handiko gazteen lexikoaren erabileran. Azkenik, Euskal Herri osoan antzeko ikerketak egiteko, dituen 500 bat grabazio aztertzeko aukera eskaintzen dau, ezen azterketa horrek emon leiken emaitza jakiteari interesgarri deritzo.

Gurutze Ezkurdiak, Begoña Bilbaok eta Karnele Perezek XX. mendearen hasieran, 1921-1922an Bilbon eratu zan Emakume Abertzale Batzaren (EAB) jarduerari buruzko informazioa idatzi dabe, dagokion kontestu historikoan kokatuta. Bertan aipatzen dabe, zelan koiuntura politikoa medio, taldea birritan sortu zen; EABko emakumeak, Eusko Alderdi Jeltzalearen idearioari jarraituz, jarduera politikoan ibili ziren; aipatzen dabe EABk emakumea lan esparruratzeko egindako ahalegina eta, Europako korrante pedagogikoak kontuan izanda, hezkuntza arloan egindako lan berritzailea, ongintza arloan egindakoagaz batera. Emakume horreetariko asko izen-deituraz identifikatuta aurkeztu ditue eta, orokorrean, eurok egindako ekarpenaren errekonozimendua sentitu daiteke inplizito.

Euskalingua 31ko artikuluko eskaintzen duten informazioari interesgarri iritsiko deutsezulakoan, hurrengo zenbakira arte agurtzen zaitugu.

Aulestin, 2017ko azaroaren 30ean

Lorea Unamuno	lorea.unamuno@ehu.eus
Maribi Unamuno	victoria.unamuno@ehu.eus
Udane Goikoetxea	udane.goikoetxea@ehu.eus

Koeditoreak